

LITERATURA. Idazlearen ipuin liburu berria aurkeztu zuten Xabier Mendiguren Elizegik eta Aingeru Epaltzak atzo



PABLO S. QUIZA

Xabier Montoiak Iparragirren kantu batetik hartu du liburuaren izenburua.

«Giza geografiari eskainitako atlasa»

Xabier Montoiaren 'Baina bihotzak dio' eman du argitara Elkar etxeak; atzerriratzea da lan horretako istorioak lotzen dituen haria

Edurne Elizondo | IRUÑEA

Iparragirren abesti ezagunaren leloa hartu du Xabier Montoiak bere ipuin liburu berriko titulutzat: *Baina bihotzak dio*. Liburu bera izenburua eman zionari eskaini dio idazleak. Elkar argitaletxeak Iruñean aurkeztu zuen Montoiaren lana, atzo, baina ekitaldian ez zuen parte hartu egileak, ez baitu, Xabier Men-

diguren Elizegi editorearen hitzetan, «testuaren eta irakurlearen artean bestelako faktorerik jarri nahi».

Herrialde guztietan, toki onak badira, baina bihotzak dio, zoaz Euskal Herrira, dio Iparragirren kanta famatuak, eta hori da Montoiaren liburuan bildutako hamahiru ipuinen mamia ere. Hamahiru ipuin, hamahiru toki, hamahiru istorio.

«Era askotako atzerriratzeak agertzen ditu liburuan, borondatez eta borondatearen kontra egindakoak, arrazoi ekonomiko edo politikoak atzean dituztenak, turismoak bultzatutako atzerriratzeak, familiak bultzatutakoak...», azpimarratu zuen Aingeru Epaltza idazleak Montoiaren lanaren aurkezpenean.

Atzerriratze horiek dira, hain zuzen, Montoiaren ipuinei lotu-

ra eta batasuna ematen dien haria. «Hari sendoa da», nabarmendu zuen Epaltzak, eta Montoiak bere liburuan mundu osoko txokoak agertzen dituela gaineratu zuen. Argentina, Mexiko, Frantzia, AEBak, Senegal... bost kontinenteetako txokotan kokatu du idazleak bere istorio sorta.

Epaltzaren hitzetan, Montoiak *Baina bihotzak dio* liburuan osatu duen atlasa ez da soilik geografikoa: «Giza geografiari eskainitako atlasa da», erran zuen idazleak, «pertsonei galeria izugarri aberatsa» islatzen duelako egile gasteiztarak.

Adin, sexu eta jatorri —Euskal Herrian, betiere— askotako pertsoniak dira Montoiarenak, «bakoitza bere hizkerarekin». «Pertsonaia batzuk, beharbada, arketipikoak dira euskal imajinarioan: pilotaria, mendizalea, erbesterratu politikoa, espetxeratua, marinela... baina badira imajinario unibertsalago bateko pertsonaia ere; banandutako senar-emazteen seme-alabak, adibidez», azaldu zuen Epaltzak.

Londresera haurtzain doan ezpeletarra, Indian neba droga-zalearen bila dabilen laudioarra, K-2ra igo nahi duen mendizale nafarra eta Afrikako portu batean dagoen marinela bizkaitarra dira Montoiak bere liburu berriaren irudikatutako pertsonaie-tako batzuk.

Euskal Herriko 30 urteotako historia azaltzeko ipuina

Baina bihotzak dio laneko hamahiru ipuinen artean berezia da azkena, *Meotz* izenekoak, aurrekoen «kontrapuntua» baita, Epaltzaren aburuz.

Izan ere, barne atzerriratzea aurkezten du idazleak akaberrako kontakizun horretan: «Lehen hamabietan 'zoaz Euskal Herrira' dio bihotzak; azkenean, berriz, 'zoaz Euskal Herri-tik'», laburbildu zuen Aingeru Epaltzak.

«Azken ipuin horretan, Euskal Herriko azken 30 urteotako historia petrala islatu du Montoiak», nabarmendu zuen idazle nafarrak. «Ipuin polifonikoa da; pertsonaiek euren burua zuritu eta ondokoa larrutzen dute. Pertsonaia bakoitzak bere egia agertzen du», gaineratu zuen.

Xabier Mendigurenek, bestalde, Montoiaren ipuinek «ekintza eta sentimenduak» uztartzen dituztela azpimarratu zuen, eta horrek egiten dituela «erakargarri».

Mendigurenek idazle gasteiztarren kontagintzaren kalitatea nabarmendu zuen atzoko ekitaldian, eta *Emakume bibotaduna* eta *Gasteizko hondartzak* li-

ESTILOA

Adineko emakume edo mutiko izateko gaitasuna

«Xabier Montoia gai da berdin adineko emakumearen edo mutikoaren azalean sartzeko», erran zuen Aingeru Epaltzak, eta pertsonaien galeria aberats eta zabala «sinesgarritasun osoz» agertzen duela gaineratu zuen. «Ez du kale egiten eta giroan lortzen du egiazkotasuna», goraiatu zuen idazle nafarrak Montoiaren lana.

Pertsonaia bakoitzak ipuinari «nortasun berezi eta propioa» ematen diola nabarmendu zuen Epaltzak, eta estiloari dagokionez ere istorio bakoitzak bere nortasuna duela gaineratu zuen.

«Estiloari dagokionez, guztiz bestelakoak diren ipuinak osatzen ditu Montoiak. Egutegi baten itxura du ipuin batek; nika idatzita dago bat, eta huraka bestea; badira ipuin polifonikoak ere, eta berdin denbora tarte oso laburrean gertatzen direnak eta 30 edo 40 urteko gertakizunak jasotzen dituztenak ere».

Baina bihotzak dio ipuin-gintzari buruzko «estilo liburu txikitat» har daitekeela gaineratu zuen Epaltzak.

AINGERU EPALTZA

Idazlea

«Atzerriratzea da Montoiaren liburuak hamahiru ipuinak elkarrekin lotzen dituen hari sendoa»

«'Meotz' ipuinak Euskal Herriko azken 30 urteotako historia petrala islatzen du; besteen kontrapuntua da»

buruetan egileak lortutako maila goraiatu zuen editoreak. «Azken hamarkadako ipuingintzarik sendo eta osoena da Xabier Montoiarena», azaldu zuen.

Gasteiztarren poesia ere izan zuen aipagai Mendigurenek, eta 80ko hamarkadan *Anfetamiña*, *Likanthropo* eta *Narratzen mintzoa* izenburuko liburuarekin euskal literaturari eta olerkigintzari «estilo eta haize berria» ekarri ziola azpimarratu zuen.